

Prentsa oharra

Nota de prensa



Hiri Mantenimendua
Mantenimiento Urbano



HIRIKO 3.200 TXORKO BAINO GEHIAGOTAN BELAR TXARRAK KENTZEKO TALKA-PLANA

Donostiako Udaleko Parke eta Lorategi Sailak datozen egunetan talka-plan bat egingo du hiriko hainbat auzotan, 3.200 txorko baino gehiago belar txarrez eta uztondoz "garbitzeko", Ekialdeko Barrutik hasita.

Mantentze-lanetako eta Zerbitzu Publikoetako zinegotzi Carlos García adierazi duenez, "Donostian azken hilabeteetako klimatologiak dela medio landaretza hori zuhaitzetako txorkoetan ugaritzea eragin du, baita parke eta lorategietako belarra eta landaredia asko haztea ere. Belar txar deitzen zaien horiek agertzea txarra ez den arren, egia da batzuetan galtzadak, bidegorriak eta pasealekuak hartzen dituztela, eta, beraz, kendu egingo dira. "

Horrela, talka-planak Altza, Bidebieta, Herrera, Ategorrieta eta Intxaurren kale, pasealeku eta plaza nagusiak hartuko ditu. Auzo horietan, aurreikusitako 1.500 txorkoak garbitzeko lanak irailaren 4an, astelehena, hasiko dira. Gureak-eko 5 langilek lan egingo dute hilabete batez, eta aurrekontua, guztira, 9.045 eurokoa izango da. Eskuz egingo da, ez baita komeni glifosatoa bezalako herbizidak erabiltzea.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Aldi berean, beste 1.750 txorkorkerekin batera, Loiolako Erribera, Isabel II.a, Errondo pasealekua, Illunbe kalea, Zorroaga pasealekua, José M^a Salaberria, Azpeitia eta Familia Sakratua kaleak, Urumea pasealekua (Aldunaene) eta Menchu Gal lorategietako eta Araba parkeko txorkoak landuko dira. Fase honek Egia auzoko hainbat kale ere hartuko ditu, hala nola Mandasko Dukea, Karmengo Ama Birjina eta beste batzuk. Bigarren fase honek 11.110 euroko kostua izango du, 9 langile izango ditu eta irailaren 15ean hasiko da, lanak urrira arte luzatuko direlarik.

Guztira, planaren bi faseen artean, 3.250 txorko garbituko dira, guztira 20.156 euroko aurrekontuarekin.

"Aipatu behar da kanpaina honek errespetatu egingo duela Donostiako hainbat eremutan garatzen ari den Txorko Bizidunen proiektua, eta emaitza onak izango dituela biodibertsitatearen eta paisaiaren ikuspegitik, hala nola Alderdiederren eta beste eremu batzuetan", esan du Carlos García.